

I. ZerNola Olinpiada

Leire Cancio Orueta

Elhuyar



Festa Miramongo Zientzia Museoaren laguntzaz ospatu zen.



E. IMAZ

“Zer dakizue armiarme buruz?”

Galdera honekin eman zion hasiera www.zernola.net web guneak **I. ZerNola Olinpiadari** 2002. urteko urrian. Izena eman zuten 58 ikasgelei erronka bat proposatu zien gure Armix maskotak hilabetero, eta baita horiek gogotsu erantzun ere. Euskal Herriko alde guztietako parte-hartzaileak izan ditugu, Barañain, Zumaia, Donostia, Gernika, Azpeitia, Beasain, Getxo, Ziburu...

Guztira, parte-hartzaileek 6 probari erantzun diete eta 2003ko apirillean jarri zen *ZerNola*-n azken proba.

Mota guztietako erantzunak egon dira proben aurrean, parte-hartzaileek bidalitako mezuek erakutsi ziguten bezala: batzuentzat errazegiak ziren; beste batzuentzat, aldiz, zailegiak. Iritziak bat zetozen gai batean bederen: sari hobekak nahi zituzten.

Baina ez pentsa sariak nola-halakoak izan direnik. Proba horien erantzunaren arabera bi zerrenda osatu ziren, hileko sailkapena eta sailkapen orokorra, Euskadiko Itzulian bezala. Hileko

gela irabazleek hilabetero sari bat jaso zuten: besterik beste, *Gipuzkoa zure esku* mahai-jokoa, CDak, liburuak, bideoak, ... Sailkapen orokorreko gela irabazleak, berriz, gelakide guztientzako asteburu bateko egonaldia irabazi du Hondarribiko aterpetxean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirolak Departamentuaren laguntzari esker.

“olinpiadetan
sortutako giroa
elkarrekin
bizitzeko topaketa
batzuk antolatu
ditugu”

Olinpiadetan sortutako giroa elkarrekin bizitzeko topaketa batzuk antolatu genituen eta pasa den maiatzaren 23an parte-hartzaileek elkar ezagutzeko aukera izan zuten Miramongo Zientzia Museoan. Museoari bisita egin ondoren, eskola guztietako gazteek elkarrekin jolastu zuten.

Beraz, I. Zernola Olinpiadaren azken kalejira egin ondoren, prestu ari gara hurrengo olinpiada prestatzen; guztion gustukoak izan daitezen egingo dugu lan.

II. ZerNola Olinpiadaren txupinazoa urrian botako dugu, ikasturte berria gogoz hasteko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten ikasle eta irakasle guztiei eta hurrengo olinpiadetan ere gurekin izatea espero dugu.

Basque Research

Basque Research tesi-lehiaketa

Basque Research euskal ikerketaren atariak urtebete egin du ekainean.

2002. urtean jaio zen atariak dagoneko bere lekutxo topatu du euskal ikerketaren munduan. Gaur egun, batezbeste 2.300 bisitari ditu hilean, eta 78 berri-emale, 54 kazetari eta 174 pertsona daude alertetan izena emanda. *Basque Research* atariaren datu-baseak 263 berri, 218 ekitaldi eta 152 fitxa ditu *Euskal ikerketaren, garapeneren eta berrikuntzaren direktorioan*.

Hori guztia ospatzeko asmoz tesi-lehiaketa antolatu dugu. Bertan 2001-2004 urteen artean aurkeztutako doktore-tesiak onartuko dira, betiere, zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten ikasketen ingurukoak. Irabazleak bidaia bat irabaziko du. Tesiak jasotzeko azken eguna irailaren 15a izango da. Lehiaketaren inguruko informazioa eta oinarriak www.basqueresearch.com helbidean aurkituko dituzue. Animo eta parte hartu! 